Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Niceta Zabala Zamakona

Berriz, Bizkaia (1937)



Aurkibidea

Biografia



Olakueta auzoko Bekoetxekoa. Gerra Zibilean jaio zen, Berrizera sartu baino 10 egun lehenago; hori dela eta, laster irten behar izan zuten etxetik ebakuatuta. Aita Lezamakoa zuen eta ama Kortederrakoa, Galdakao eta Zornotza artekoa. Aita gero preso eroan zuten. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko ere egin zitzaion elkarrizketa bat 2006an, Karmen Arostegirekin eta Tere Garairekin batera.

Zintak

BRZ-039

- **Proiektua**: Berriz 1936 gogoratzen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Maite
- **Data**: 2007-11-22
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Arrizabalaga, Maite

BRZ-058

- **Proiektua**: Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gerenabarrena, Maite
- **Data**: 2006-01-01
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Gerenabarrena, Maite

Pasarteak

1. Jaio eta berehala, gurdian Larizgoitira

- **Erref**: BRZ-039/002
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Arietako Gerbasiok gurdian eraman zuen Larizgoitira Niceta jaio zenean, gerrarengatik ihes egin beharra zeukatelako.

2. Aita adreilugilea

- **Erref**: BRZ-039/003
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:06:44. **Bukatu**: 00:09:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aita Lezamakoa zen eta ama Zornotza aldekoa. Errentan hartu zuten etxean, Berrizera etorri zirela. Etxejabea zein zen kontatzen du. "Ladrilleruena" izeneko etxean bizi ziren; izena aitaren lanbidetik datorkio etxeari. Nola lan egiten zuen kontatzen du.

3. Aitaren harrobia

- **Erref**: BRZ-039/007
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:14:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Frantziatik etorri eta gero aitak hareari buruzko jakintza ekarri zuenez, harrobia zabaldu zuten. Sukaldea garbitzeko harea erabiltzen zuten. Harea industriarako ere erabiltzen zen.

4. Aita kartzelan eta furgoneta errekisatuta

- **Erref**: BRZ-039/009
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:17:01. **Bukatu**: 00:18:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Aitak gerra hasi zenerako, furgoneta bat zeukan eta errekisatu egin zioten. Aita kartzelan Bilbon egon zen eta negar asko egiten zutela han kontatzen zien aitak, baita norekin egon zen han ere.

5. Aitak kartzelatik irten eta Frantziara alde egin behar izan zuenekoa

- **Erref**: BRZ-039/011
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:20:47. **Bukatu**: 00:23:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Aita kartzelatik irten zenean, istripua izan zuen; mutikoren bat harrapatu eta hil egin zela kontatzen du. Horren ondorioz, mehatxua jaso zuen aitak eta alde egin behar izan zuen Frantziara. Gurs-eko kontzentrazio eremuan egon zen. Bost urte zituela ezagutu zuen aita. Bitartean, amak adreiluak eta harea saltzen ibili behar izan zuen.

6. Etxera itzulitakoan, dena hondatuta

- **Erref**: BRZ-039/012
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:23:38. **Bukatu**: 00:25:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Beraien etxea nolakoa zen kontatzen du. Etxea hondatuta topatu zuten. Etxejabeek ez zuten bota.

7. Aitaren Frantziako egonaldia eta itzulera

- **Erref**: BRZ-039/013
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:25:57. **Bukatu**: 00:28:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Lau seme-alabarekin geratu zen ama. Aita etorri zenean, bere lanera bueltatu zen, baina dinamita behar zuenez lanerako, bere izenean ezin izaten zuen lortu. Frantziatik osasun txarrarekin etorri zen eta gazte hil zen. Frantzian arratoiak jateko nola harrapatzen zituzten kontatzen zien aitak.

8. Errepresioarengatik, isilik egon beharra

- **Erref**: BRZ-039/016
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:33:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Etxearen azpiko aldea kortatzat hartuta zeukaten tropek. Etxean ez zuten gerrako kontuei buruz berba egiten. Jendearen galderak asmo txarrarekin egindakoak izaten zirela uste izaten zuen bere amak. Radio Paris entzuten egoten ziren etxean, isilean.

9. Niceta Ariznabarreta Saturrarango kartzelan

- **Erref**: BRZ-039/020
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:41:42. **Bukatu**: 00:43:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Nicetak kontatzen zion Saturrarango kartzelan oso gaizki pasatu zuela. Gorrotoarengatik salatu zutela kontatzen zuela dio. Gerora, kalte-ordainak jasotzeko aukera izan zutenean, hilabeterengatik ezin izan zutela ezer kobratu kontatzen du. Kartzelan zorri asko izan zituztela kontatzen omen zuen Nicetak.

10. Olakuetako etxeak

- **Erref**: BRZ-058/003
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:06:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Olakuetan lau etxe ziren: Pedro Juanena, Abarketeruena (Esteban Arostegi zen abarketagilea), Pantaleonena (bere aitaginarrebaren izenetik datorkio etxeari izena; errota zuen etxeak) eta Ladrilleruena (Nicetaren aitak adreiluak zela egiten zituen azaltzen du). Ariznabarretana etxea ere bazegoen.

11. Angel Gaztelurrutia ferratzailea

- **Erref**: BRZ-058/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:08:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:
Olakuetan ferratokia zegoen; Angel Gaztelurrutia zen ferratzailea. Zela lan egiten zuen azaltzen dute. Abereak sendatzeko erremedioak ematen zituen Angelek. Inazio izeneko bat ere izan zen ferratzailea.

12. San Antonio eta ingurua zelakoak ziren

- **Erref**: BRZ-058/005
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:08:07. **Bukatu**: 00:12:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Olakueta auzoko argazkiari begira daude. San Antonio zelakoa zen azaltzen dute zehatz. Auzoko etxe berriei eta bideei buruz berba egiten dute. Gorago Txaparrona zegoen eta aurreko aldean palazioa. Forjari eta palazioari buruz berba egiten dute.

13. Palazioa eta ingurua zelakoak ziren

- **Erref**: BRZ-058/006
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:12:03. **Bukatu**: 00:15:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Palazioaren alde batean farmazia zegoen eta bestean denda. Errepidea egiteko palazioa bota egin zuten; nor bizi izan zen han kontatzen dute. Plazan Renobalesen etxea zegoela diote, eta segidan lehengo Pantaleonena. Eskolak eta frontoia aipatzen dituzte, baita probatokia ere. Berrizko limonada lantegia ere aipatzen dute.

14. Bizikleta eta limonada lantegiak

- **Erref**: BRZ-058/010
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:21:21. **Bukatu**: 00:22:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:
Bizikleta lantegia zegoen; ugazabak eibartarrak ziren. Limonada lantegi barruan egonda daude; lorategia zeukaten. Limonada lantegiko jabeak eta bazkideak aipatzen dituzte.

15. Berrizko eskolak

- **Erref**: BRZ-058/013
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:25:28. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Zein eskolatan ibili ziren kontatzen dute. Anekdota bat kontatzen dute, txakurra kartzelan eduki zutenekoa. Olakuetakoa, udaletxekoa, Sarrian, Andikoan, Uriben eta Miotan zeuden eskolak. Hamalau urtera arte ibili ziren. Entziklopediarekin denetarik ikasi zuten.

16. Umetako jolasak

- **Erref**: BRZ-058/014
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:28:18. **Bukatu**: 00:29:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Sokan, korroka, txirikilan, lapurka, "zelemina"n, tronpan, diabolora, pilotan, palan... ibiltzen ziren olgetan.

17. Denak pobre

- **Erref**: BRZ-058/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:29:16. **Bukatu**: 00:30:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Egunerokoan abarketak eta gomazko zapatak erabiltzen zituzten. Orduan denak pobre ibiltzen ziren. Erregeetan laranjak oparitzen zizkieten. Trapuzko panpina handi bat zeukan etxean hiztunetako batek.

18. Nicetaren aita Frantziara ihesi, Karmen Karrantzara

- **Erref**: BRZ-058/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:32:49. **Bukatu**: 00:34:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Nicetaren aita Frantziara joan zen ihesi, heriotza zigorra ezarri ziotelako. Bost urte zituela ezagutu zuen aita. Umeak zirenez, ez dira asko akordatzen. Karrantzara behi eta guzti joan ziren Karmen-eta; bertako udaletxeak egiten zien harrera.

19. Bizikletan, asto gainean eta mando gainean komeriak

- **Erref**: BRZ-058/024
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:48:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bizikletan ikasi zuenekoa kontatzen du hiztun batek. Hiztun hori bera, esnedunak astoa lotuta lagatzen zuenean, asto gainean ibiltzen zen; harrapatu zuenean, haserre egin zionez, hurrengo aske laga eta baserrira bidali zuen astoa. Mando gainean zebilela gertatutakoa pasarte barregarria kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-11

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com